



ekin eta ekin

JOLASEAN

LEHEN HEZKUNTZA

3. zikloa

Soka-tira

Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- HIZKUNTZA.
- GORPUTZ HEZKUNTZA.

SOKA-TIRALDI BAT EGINGO DUGU. Gure soka termometro moduan erabiliko dugu, bi taldeen indarrak neurtzeko eta behar izanez gero, zuzentzaileak jaritzeko. Soka-tirak neurtuko du momentuko gure ondarearen egoera, eta baita, gure esku artesa, bere etorkizuna. Proposaturiko ariketa gauzatzeko, lehen-dabizi, gai zerrenda bat osatuko dugu eta guztira esaldi bat gelakide bakoitzeko osatuko dugu. (Begiratu adibideko taulatxoan). Hau egin eta gero, esaldi bakoitza gelakide batekin erlazionatuko dugu,

HELBURUAK


- Inguruko ondareaz jabetzea.
- Zaindu eta hobetzearen jarrera bultzatzea.

MATERIALAK

- ◆ Soka

eta azkenik klasekideen artean adostu esaldi bakoitzarekin duzuen iritzia. Taldeak osaturik daudenean: Sokaren alde batean *Ona* markatu dituzuen esaldien ordezkarriak jarriko dira eta bestean *Txarra* markatu dituzuen ordezkarriak. Hasi tiraka.

Baliteke tiraldian aldaketak egin nahi izatea, horretarako zerrendatu aurkitu dituzuen arazorik larrienak (guztira gelakideen kopurua erdia baino ez) eta zuen ustez arazo horiek konpontzeko behar dena (ideien kopurua klasekideen erdia beste), eta zuen esku dagoena egin: dagokionari jakinerazi edo ahal izanez gero zuek zeuk ekin lanari. Ea ondo aritzen zareten!



ESALDIA

GELAKIDEA

EGOERA ONA

EGOERA TXARRA

Garraio publikoa	Maider		Autobus linea bakarra dago eta maiztasuna eskasa da
Herriko kaleetan dagoen zarata	Asier	Ez da gehiegi entzuten	
Parkeko paperontziak	Julene		Apurturik daude eta gainezka
Parkeko zuhaitzak eta landareak			
Jolastokia			
Herriko espaloiaiak			
Eserlekuak			
Bide-gorriak			
Errekako bazterrak			
Errekako garbitasuna			
Eraikin ederrak (eliza, udaletxea, dorretxeren bat...)			
Ikastetxea			
Kultur etxea			
Kiroldegia			
Inguruko basoak			